

## ELKARTZE ARETOA ERABILTZEKO ARAUAK

2. Hona hemen aretoan egin daitekeena:
  - Egunkariak eta aldizkariak irakurri.
  - Mahai jokoak erabili.
  - Aldian behin antolatzen diren beste jarduera batzuk: txapelketak, emanaldiak, solasaldiak eta abar.
2. Aretoa egon ahal izateko eta jokoak erabili ahal izateko, 8 urtetik beherako haurrek heldu batek lagunduta etorri beharko dute.
3. Ez dago aretoko arduradunek eman ez duten jokorik erabiltzerik, ez eta diru apusturik egiterik ere.
4. Saia zaitez enbarazu egin dezakeen zaratarik ez sortzen eta aretoaren funtzionamendu egokia eragozten ez duen tonuan hitz egiten.
5. Ahalegin zaitez egunkari berarekin ordu erdi baino gehiago ez luzatzen, prentsaren erabilera arrazoizkoa izan dadin.
6. Zerbitzua ixteko hamabost minutu geratzen denean ez da joko gehiagorik utziko.
7. Errespetatu itzazu irakurtzeko eta jolasteko guneak, bai eta haurrentzako esparrua ere. Baliteke jolasteko eta beste jardueretarako mahaien kopurua mugatzea.
8. Haurrentzako jolas txokoak 0 eta 5 urte bitarteko umeentzat dira.
9. Maileguan utzitako materiala hartutakoan bezala utzi behar da; entregatzean egiaztatuko da hori. Jasotzerakoan hondatuta dagoela ohartuz gero, jakinarazi iezaiozu aretoko arduradunari.
10. Gainerako pertsonen erabiltzaile zein gizarte etxeko arduradun- begirunea erakutsi.
11. Aretoko segurtasuna eta ordena bermatze aldera, eta jende ugari ibiltzen denez, asistentzia kontrolatu egingo da, eta ezingo da sartu zehaztutako edukiera (aulki kopuruari dagokiona) baino jende gehiago.
12. Altzariak zuzen erabil itzazu, eta errespetatu ezazu aretoko arduradunek mahaiak eta aulkiak antolatu duten modua.
13. Aretoa ez dago ez jaterik ez edaterik, horretarako zehaztutako guneetan salbu.
14. Arau hauek betetzen ez badira gizarte etxeen eta kirol instalazioen araudian aurreikusitako zigorrak ezar daitezke. Gertaeraren larritasunaren arabera, ohartarazpenetik hasi eta zentroan sartzea debekatzera edo isunak jartzera irits daitezke zigorrak.